

BEREN KONTURAKO NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA	
Gutxieneko oinarria (euro/hil)	950,98 €
Gehieneko oinarria (euro/hil)	5.101,20 €/hil
Tasak	18,75%: Oinarria hilean 950,98 eta 1141,18 euro bitartean dagoenean
	26,50%: Hilean 1141,18 eurotik gorako oinarrian kotizatzen badu, haren gaintik dagoen zenbatekoa.
Borondatezko hobekuntza (ABEa, kontingentzia arruntak)	3,30%
	% 2,80, kontingentzia profesionaletatik babesteko sistemara atxikita badago
Laneko istripuei eta Gaixotasun Profesionalei dagokien tasa	Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hirurogeita batgarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa-tasak aplikatuko dira.
BHBa (ez dagozkio laneko istripua eta gaixotasun profesionala)	1,00%
Jarduera etetea	2,20%
Belaunaldiarteko ekitateko mekanismoa	0,90%

Kuotak hobaritzea nekazaritzako ustiategiaren titularraren zenbait senideren alde.

1. Nekazaritzako jardueran hasi diren eta, Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileen Sistema Bereziaren bidez, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren sartuta dauden pertsonen kasuan, baldin eta sartu diren unean berrogeita hamar urte edo gutxiago badituzte eta nekazaritzako ustiategiaren titularraren ezkontideak edo ondorengoak badira, betiere, titularrak aipatutako araubide edo sistema berezietan alta emanda badago, hobari bat jasotzeko eskubidea izango dute alta eman eta hurrengo bost urteetan; hobari hori sistema berezi horretan aplikagarria den taula orokorreko 1. tartearen gutxieneko kotizazio-oinarrian kontingentzia arruntei dagokien kuotaren ehuneko 40koa izango da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 325. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Artikulu horretan araututako hobaria, betiere, bertan zehaztutako baldintzak betetzen badira, nekazaritzako ustiategiaren titularraren ezkontideari ere aplikatuko zaio, ustiategiaren titular bilakatzen bada titulartasun partekatuko araubidean, salbu eta 1. zenbakian aurreikusitakoaren arabera hobaria baliatzen ari bada; kasu horretan, hura jasotzen jarraituko du harik eta amaitu arte.